

Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

Emakumeen migrazioak mugikortasun globaletan

23.

***Emakumeen migrazioak mugikortasun
globaletan***

Raquel—Martínez Buján

Noiztik dira emakumeak nazioarteko migrazioen protagonista?

Emakumeak beti izan dira migrazio-mugimenduen partaide. Dena den, azken hogeita hamar urteetan, eta ikuspegi global batetik begiratuta, herrialde garatuetan izandako nazioarteko migrazioetan geroz eta gehiago izan dira emakumeak. Igoera hori Europan gertatu da batez ere, migrazio-fluxu feminizatuenak hartu dituen geografia-eremu bihurtu baita. Eta joera hori are nabarmenagoa da Hegoaldeko Europan (Espainian, Italian eta Portugalen). Espainiari dagokionez, emakumeen migrazioak laurogeita hamarrekota hamarkadan hasi ziren garrantzia hartzen, eta XXI. mendeko lehen hamar urteetan nabarmendu ziren. Une honetan, 3.700.000tik gora emakume migratzaile bizi dira herrialdean, hau da, biztanleria migratzaile osoaren % 51,6; emakume horien % 34k du espainiar nazionalitatea. **Euskadin, emakume migratzaileen ehunekoak apur bat handiagoa da, % 52,5ekoa, hain zuzen.**

Migratzaile guztien artean emakumeek duten ehunekoak nahiko orekatua dirudi. Zergatik hitz egiten da feminizazioaz?

Datuak Espainiako estatuko egoiliarren ikuspegitik irakurtzen ditugulako, ez migratzen duten herrietako ikuspegitik. Hala, **ehuneko horrek, guretzat, feminizazio ez oso handia adierazten duen arren, haien jatorri-herrialdeetan askoz ere eragin handiagoa du.** Zenbait herrialdeetako komunitateetan, oso altua da Espainiara migratzen duten emakumeen ehunekoak; hala gertatzen da, esaterako, Hego Konoa osatzen duten herrialdeetan eta Latinoamerikako Andeetako eskualdeko herrialdeetan. Herrialde horietatik emakumeak atera dira bereziki, eta, horrenbestez, mugimendu horiek feminizazio handiagoa eragin dute eskualde horien arteko migrazioetan.

Zein dira emakume migratzaileen jatorri-herrialde nagusiak?

Latinoamerika da emakume migratzaileen jatorri-herrialde nagusia; **emakume migratzaileen % 48,9 Latinoamerikakoak dira**. Nazionalitate feminizatuenak berriki ezarritakoak izaten dira beti. Hori gertatu da Paraguain; guztizkoaren % 69,3 dira emakumeak. Brasiletik ere emakumeen emigrazio handia izan da Espainiara, % 62,4ko ehunekoarekin. **Euskadiri dagokionez, nazionalitate feminizatuenak Nikaragua** (% 73,2 dira emakumeak), **Honduras** (% 71) eta **Brasil** (% 68) dira. Izan ere, migratzaileak lurralde batean kokatu ahala, sexuaren arabera orekatu ohi dute beren presentzia, finkatze horretan berriro elkartzen baitira beren bikotekideekin eta familiekin.

Zer arrazoi daude mugikortasun horien atzean?

Lan-merkatuko beharrek ekarri dute, besteak beste, Latinoamerikaren eta Hegoaldeko Europaren (eta, bereziki, Espainiaren) arteko biztanleria-mugimendu horietan emakumeek geroz eta parte-hartze handiagoa izatea, emakume migratzaileak oso jarduera-sektore espezifikoetara bideratzen baitituzte, gizarte modernoan tertziarizazio-eskaera berriei erantzuteko. **Merkataritza, manufaktura-industria, salmentako administrazio-jarduerak, janarien elaborazioa eta etxeko nahiz zaintzako lanak izan ohi dira emakumeen enplegu-iturri nagusiak.**

Zer jardueratan aritzen dira emakume langile migratzaile gehien?

Aipatutako jarduera horien guztien artean, «**zaintza-lanak**» **deritzenetan** (haurrei, gaixoei eta adinekoei arreta pertsonala ematen dietenak) **eta** «**etxe-zerbitzuan**» **aritzen dira emakume migratzaile gehien**. Azken hamarkadetan lan-merkatuetan izan den bilakaeraren fenomeno harrigarrietako bat arreta pertsonaleko enplegu horien suspertzea izan da, zalantzarik gabe, eta, enplegu horien artean, nabarmentzekoa da etxe-zerbitzuaren berragertzea; zerbitzu horren eskaria orokortu egin da, gainera.

Zer dela-eta ugaritu da zaintzako eta, bereziki, etxeko zaintzako langileen eskaera?

Azken hamarkadetako aldaketa sozialek, demografikoek, kulturek, ekonomikoek eta politikoek bultzatu dute langileen eskaera hori mendebaldeko herrialdeetan. Aldaketa horietatik guztietatik, hauek nabarmendu behar dira: biztanleriaren zahartzea eta egunerokoan zainketak behar dituzten mendeko pertsonen kopurua handitzea; emakumeak lan-merkatuan sartzea eta, horren ondorioz, etxeetako lan erreproduktiboetan bete-betean jardun dezaketen bikotekideen kopurua gutxitzea; eta senitartekoak geografikoki geroz eta sakabanatuago egoteko joera izatea eta, familiari nahiz aisialdiari dagokienez, beste balio batzuk agertzea, etxeari eskaintzen zaion denbora beste modu batean kudeatzea ekarri dutenak.

Ba al dago langile migratzaileak zaintza-sektorean biltzen direla erakusten duen daturik?

2019ko biztanleria aktiboaren inkestaren datuen arabera, **etxeko langileen % 62,5 emakume migratzailea da**; hau da, ia 263 mila pertsona. 2000. urtean, langile migratzaileak ez ziren etxeko langile guztien % 31,8 izatera iristen. Beste jarduera bakar batean ere ez da biltzen langile migratzaileen halako kopururik; horregatik, etxe-zerbitzua hartzen da kolektibo horren lan-nitxo nagusitzat. Nolanahi ere, zaintza-lanaren barruan beste lanbide batzuk ere sartzen dira, eta horiek ere oso feminizatuta daude. Esatera baterako, gizarte-zerbitzuetako etxeko zainzaileen artean ere (etxez etxeko laguntza-zerbitzukoak, adibidez), handia da emakume migratzaileen kopurua; langile guztien % 49,6 da dagoeneko. Orokorrean, egoitzetan, gizarte-zerbitzuetan eta etxe-zerbitzuan lan egiten duten zaintza-langileak 737 mila eskas dira.

Lanbide horiek ematen al dute behar bezala gizarteratzeko aukera?

Emakume migratzaileen lanbideak ezkutuko ekonomiaren barruan egoten dira askotan. Egoera horrek zaildu egiten du emakume horiek gizartean eta herritarren artean integratzea; izan ere, langile formaltzat hartzen ez direnez, ez dituzte gainerako herritarrek dituzten eskubide sozial guztiak.

Espainian, ongizatea bizitza aktiboko kotizazioaren mende dago, neurri handi batean. Behar beste kotizatu ez bada, edo lan-ibilbidea sarritan eten bada, ez dira betetzen pentsioak edo subsidioak eskuratzeko legeriak ezarritako irizpideak. Espainiar jatorriko biztanleriaren artean ere gertatzen da hori, baina migratzaileen kasuan testuingurua okerragoa da; izan ere, arazo horrez gain, ezin dituzte lan- eta bizileku-baimenak eskuratu, ezinbesteko direnak eskubide osoko herritar gisa bizitzeko. Egoera hori are nabarmenagoa izan da emakume migratzaileen artean, nagusiki arauz kanpoko lan-merkatuan aritzeak gizarte-bazterketako poltsetan irautea eragin baitu.

Zentzu horretan, zer egin dezake Adminis- trazioak?

Bizileku- eta lan-baimenak eskuratzeko eta nazionalitatea lortzeko baldintzak malguagoak izateak emakume migratzaileak lan-merkatu formalean aritzea erraztuko luke, gizarte-segurantzari kotizazioak ordaintzea bermatuko luke, eta ezkutuko ekonomiari nahiz zerga-iruzurrari aurre egingo litzaioke; aldi berean, eskulanaren jatorri- eta helmuga-herrialdeen arteko lankidetzaren esparru hobek sortzea ekarriko luke. Proposamen horren inplementazioa transnazionala litzateke, mugimendu transnazionalak hobetzea ekarriko bailuke, bai eta jatorri- eta helmuga-lurraldeen artean pertsonen aldi baterako joan-etorriak hobetzea ere. Joan-etorri horiek egitea dagokien pertsonen lan- eta bizileku-baimenak izatearen mende dago, nagusiki.

Covid-19aren pandemian, etxeko zaintzai- le horiek funtsezko langile bihurtu dira. Hobetu al da gizartean duten balorazioa?

Pandemiak agerian utzi ditu murgilduta gauden ongizatearen zenbait kontraesan. Horietako bat izan da, hain zuzen, itxialdian eta norbera babesteko ekipamendu egokirik gabe, beren lanpostuetan egon diren zaintza-langileen garrantzia. Langile horien lan-egoera bistaratu da, eta eztabaida gehiago sortu dira pertsona horien lan-baldintzen inguruan. **Nolanahi ere, oraindik ez da bukatu osasun-krisi honetan bizitzen ari diren zaugarritasun- eta hauskortasun-egoera. Egoerari aurre egiteko laguntzak oraindik ez zaizkie iritsi hartzaileei, eta horrek, prekarizazio-egoeraz gain, pobrezia dakar.** Pandemia-garaian, sindikatu eta hirugarren sektoreko elkarte ugari salatuta dute zaintzaile ez-profesionalek lanean bizi behar izan dituzten prekarizazio-egoerak.

Zein dira etxe-zerbitzuko langileen lan-baldintza horiek?

Etxeko langileek lan-baldintza negargarriak dituzte; hain negargarriak, etxe-zerbitzuaren jarduera arautzen duten 1620/2011 Errege Dekretuaren eta 27/2011 Legearen erreformek ere ez baitute lortu egoera egonkortzea. **Ez dute lan-gabeziagatiko laguntzarik, eta atzera egiteagatik kaleratu ditzakete** (hau da, nagusiak lan-harremana amaitutzat eman dezake aldebakarreko erabakiz, baldin eta irizten badio langileak egiten dituen jarduerak jada ez direla behar edota langilearengan konfiantza galdu duela argudiatzen badu); **hori dela-eta, langile-kolektibo zaurgarrienetako bat dira**. Halakoa da, halaber, egoitzetako langileen egoera; oso prekaritate handiko sektorea da lan-baldintzei dago-kienez, haien soldata baxuak eta lan-jardunaldien intentsitatea direla-eta. Bi kolektibo horien gain geratzen da dagoeneko «*lan zikina*» esaten zaion hori.

Sar al daiteke etxe-zerbitzua mendekotasunari lotutako gizarte-politiken esparruan?

Etxeko langileak -adinekoen zaintzaileak gehienak- ez daude gizarte-zerbitzuen sarean sartuta; horrez gain, ez dira osasun-arretaren parte, ez sistema publikoaren parte ez sistema pribatuaren parte. «Mendekotasun Legea» izenekoak ez ditu aipatu ere egiten familiek zeregin horiek pribatizatzeke dituzten baliabide nagusizat. Euskadin, esaterako, argi ikus daiteke lanbide hau familiek zainketan duten presentzia arintzeko baliabide bihurtu dela. Euskadi da, hain zuzen, zerbitzu hau gehien erabiltzen den lurraldeetako bat. Langile hauek gizarte-zerbitzuekin duten harremana esku-hartze sozialaren xede-taldea izatearekin dago lotuta; ez dira hartzen arreta pertsonala duintzeko lan egin daitekeen kolektibotzat.

Ba al dago etxe-zerbitzua legeztatzeko formularik?

Etxeko Langileen Hitzarmen Berezia Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrarekin parekatzea litzateke mekanismo garrantzitsuenetako bat; horri esker, sektore horretan aritzen diren emakume migratzaileek langabeziagatiko diru-laguntzak jaso ahal izango lituzkete. Horrez gain, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena, etxeko langileentzako lan egokiari buruzkoa, berretsi behar litzateke, gutxieneko akordio batzuk ezartzen baititu gai hauen inguruan: gutxieneko soldata, gaixotasun-baimena eta ezgaitasun-prestazioak, oporraldiko prestazioak, eta nagusiek beren langileak legezko lan-estandarren arabera tratatzeko obligazioa.

Nola aztertu da akademian fenomeno hau?

Oro har, uste da emakumeen migrazio-mugimenduak finkatzea azaltzen duten aldatetako bat izan dela industrian oinarritutako ekonomiatik zerbitzuetan oinarritutako ekonomiara pasatzea. Trantsizio horrek lan-nitxo sexuatuak eta etnizitatuak sortzea ekarri du, eta, horien ondorioz, gizon eta emakume migratzaileak oso enplegu-mota desberdinetan sartzen dira, lanaren ohiko sexu-banaketarekin bat eginez. Bertako biztanleek jada ez dituzte jarduera horiek egin nahi, zereginen intentsitatea eta lan-harremanen formaltasun eza direla-eta.

